

@@@EDIKTUA, 2011ko irailaren 8koa, Laneko zuzendariarena, XXXXXXXXXXXXXXXX
enpresari 07.0131.01.01.02 espedientearen gainean emandako ebazpena jakinarazteko
dena.@@@

Nik, Katrin Begoña Iturrate Zamarridak, Laneko zuzendaria naizenak, hau jakinarazten dut:

XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX eta XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX enpresek 5/2000
Legegintzako Errege Dekretuaren 13.10 artikulua aurkako arau-hauste oso larria egin
dute. 259/07 arau-hauste akta dela-eta irekitako 07.0131.01.01.02 espedientea amaituta,
ebazpena eman da, batetik, akta horretan jasotako zehapen-proposamena baiesteko,
bestetik, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX enpresari hogeita hamasei mila (36.000) euroko
zehapena ezartzeko, eta, azkenik, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX erantzule solidarioa dela
ebazteko (5/2000 Legegintzako Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, Lan-arloko arau-hauste
eta zehapenei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena).

Ahaleginak egin diren arren, ezin izan zaio ebazpena jakinarazi XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX
enpresari (XXXXXXXXXX errepidea, 33, 2, 09200 XXXXXXXXXXX, XXXXXX). Beraz,
jakinarazpena egiten zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio
Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan agindutako
moduan. Ohartarazten zaio, halaber, ebazpen horrek ez diola amaiera ematen
administrazio-bideari eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaiokeela –
tokian tokiko lurralde-ordezkaritzaren bitartez– Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Laneko
sailburuordeari, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean, hala
xedatzen baita 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan.

Enpresak, gora jotzeko errekurtoa aurkezteko eskubidea erabiltzen ez badu, ezarri zaion
zehapena ordaindu beharko du, Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidearen bitartez,
interneteko helbide honetan: <http://www.euskadi.net/mipago>. Ordainketa egiteko azken
eguna 2011-08-8a da; eta ordainketa egiteko behar diren datuak, honako hauek:

- Diru-billetako prozeduraren kodea (DPK): 9050794
- Erakunde jaulkitzailea: 04833001-522
- Erreferentzia: 0107019400242
- Identifikazioa: 081111
- Zenbatekoa: 36000,00 euro.

Enpresak zehapena ordaintzen ez badu, premiamendu-bideari ekiteko administrazio-egintza
hasiko da zehapena kobratzeko. Hori dela-eta, premiamendu-errekargua eta berandutze-
interesak ordaindu beharko ditu, 212/1998 Dekretuan ezarritako prozedura aplikatuz
(212/1998 Dekretua, abuztuaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren
Dirubilletarako Erregelamendua onartzeari buruzkoa).

Enpresarentzat jakinarazpen-ondorioak izan ditzan argitaratzen da ediktu hau, Herri
Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren
26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan xedatutako moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 8a.

Laneko zuzendaria,

KATRIN BEGOÑA ITURRATE ZAMARRIPA.